BESTELAKO XEDAPENAK

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

5297

AGINDUA, 2011ko irailaren 19koa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan, Bilboko «Fundación Colegio del Ave María» fundazioaren iraungipena onartu eta inskribatzeko dena.

Epigrafiatutako espedientea ikusita eta azterturik, ondoko aurrekarietan oinarriturik:

AURREKARIAK

Lehenengoa.– Instituto de Religiosas Operarias del Divino Maestro-ko ama nagusiak sinatutako idazkia, 2010eko irailaren 7koa, ikusi da; eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan dauden erregistro-aurrekariak azterturik; besteak beste, ondoriozta daiteke: Fundazioa luzaro egon dela jarduerarik gabe, eta 2011ko martxoaren 29an, zera eskatu zitzaiola: «Colegio del Ave María» izeneko Fundazioa iraungitzeko kausez informazioa emateko.

Bigarrena.– 2011ko ekainaren 2an, Justizia eta Herri Administrazio Sailean honako idazki hau jaso zen: aipatu errekerimenduari erantzuteko, Francisca Pérez Gómez andreak sinatutakoa, zeinetan honakoak adierazten baititu:

1.– Ordezkatzen duen institutu erlijiosoko ama nagusiaren kargua duenetik eta karguan aurretik egon zenaren arabera, Fundazioak ez duela aspaldian jarduerarik izan.

2.– Berak dakielarik Fundazioak ez ditu estatutuak ez eta gobernu-batzorderik ere.

3.– Fundazioak ez du jabetzan inolako eskubiderik ez eta ondarerik.

4.– Ez du estatuturik, ez gobernu-batzorderik ez ondarerik ere; beraz ez du inolako bitartekorik bere jarduera gauzatzeko.

5.– Eta guztia hori dela-eta, uste du kasu honetan badela, beherago zehaztutako legeen arabera, iraungipen-kausa, izan ere, agerikoa baita ezin duela garatu bere jarduera: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legeko 33.b artikulua, eta KZko 39. artikulua.

Hirugarrena.– Bestalde, Mario Iceta Gavicagogeascoak, Bilboko gotzainak, zera adierazten du gorago aipatu idazkaian: aipatu errekerimenduaz informatua izan dela, eta lehenago adierazitakoen gainean ez du ezer esatekorik, izan ere, delako fundazioa iraungitzetik ez baitator inolako kalterik, eta hala adierazten du bere sinadurarekin.

Francisca Pérez Gómez-en eta Mario Iceta Gavicagogesacoaren sinadurak notarioaren aurrean legeztatutakoak dira.

Laugarrena.– «Colegio Ave María» delakoaren aurrekariak aztertu dira, eta jasota dira honakoak: Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren 1968ko abuztuaren 8ko Ebazpena, zeinarekin ongintza-sorospenerako entitate gisa kalifikatzen baita «Colegio del Ave María», Fundazioa, Congregación de Religiosas Operarias del Divino Maestro delakoarena; eta patronatua Bilboko gotzainari

dagokiola eta zuzendaritza eta administrazioa Congregación de Religiosas Operarias del Divino Maestro delakoari.

Colegio del Ave María delakoa hezkuntzako ongizaterako entitate partikular gisa sailkatzeko, Bizkaiko Gizarte Laguntzako Probintzia Batzordeak egindako ofozioan ikus daitekeenez, aipatu «establezimendua», «obra pía» gisa sailkatua, 1916an eratu zen.

Ildo horretan, aipatu dokumentazioan jasotakoaren arabera, Colegio del Ave María establezimenduak 50 urte daramatza ekonomiaren aldetik ahul diren familietako seme-alabak doan zerbitzatzen; beraz, ongizate-sorospenetako entitate partikular gisa sailkatzeko eskatzen du, eta bai «txirotasun-ziurtagiria» ere.

OINARRI JURIDIOAK

Lehenengoa.– Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari dagokio, agindu bidez, iraungipena onartzea; betiere, honako arau hauekin bat etorriaz: Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko Legearen 33. artikulua eta horrekin bat datozenak; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen duen 100/2007 Dekretuko 35. artikulua eta horrekin bat datozenak; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregelamendua onartzen duen 100/2007 Dekretuko 46. artikulua eta horrekin bat datozenak.

Bigarrena.– Beharrezkotzat jotzen diren agiriak eta datuak erantsi zaizkio espediente honi; goragoko oinarri juridikoan aipatu artikuluetan aurreikusitako baldintzak beteaz.

Eta hori hala da, izan ere, ez baita eraketa-titulu juridiko partikularrik (Colegio Ave María establezimendua ongizate-sorospenerako entitate partikular aitortzeko eskaeraz bestelakorik); fundazio-negozio juridikoa gaitzen duen subjektu gisa, ez da agertzen fundatzaile bat; estatutu-arautegi prestatu, aplikatu eta ezagunik ere ez da agertzen. Ez da fundazioaren inolako «Erregelamendurik» (ez Administrazioaren aldetik ez eta partikularren aldetik ere); ez da kudeaketa eta administrazioa bereganatu duen inolako organo-batzorderik (ez dago jasota ezen, Bilboko gotzainak halako ardurarik bereganatu duenik); ez da agertzen aipatu Colegioaren fundazioko baliatze organikorik, desberdina eta fundazioari dagokiona; ez da egiaztatutik fundazioari dagokion inolako egintzarik baliatu denik; eta, azkenik, ez da honakorik: Kongregazio erlijiosoaz aparteko pertsona juridiko independente gisa, Fundazioaren izenean, inolako ondasunik titularizatu denik.

Eta guzti horrek hona garamatza: fundazioko jarduera gisa, azkenik egindako egintza administratibora (edo pribatura)

Eta horri dagokionez, bakarrik ikus daiteke lehena eta bakarra (azkena beraz) den administrazio-egintza ebatzizkoa (erregistro edo babeslaritzakoa), fundazioen arloko funtzioak baliatzeari dagokiona, 1968ko abuztuaren 8koa, entitatea ongintza-sorospenerako artean sailkatuaz.

Beraz, esandako guztia kontuan izanik eta gutxieneko segurtasun juridikoa lortzearren eta bai hirugarrenekiko errespetuzko hartu-emanak ere, bidezko da «fundazioa» delakoa iraungitzea; betiere, Colegioari hasieran esleitutako sailkapen meritatuaren ondorioz, eta hori erregulatzen duen arautegia aplikatuaz, hala ahal den heinean.

Ildo horretan, bidezkoa da 12/1994 Legeko 33.b) artikuluko iraungipen-kausa aplikatzea, eta ez da beharrezkoa 12/1994 Legeko 35. artikuluan araututako likidazio-prozesua irekitzea; beraz, egoki da erregistro-ezeztapena egitea.

Ildo beretik, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuko 2.3.h) eta 4.1.a) artikuluetan araututakoaren ondorioetarako, bidezkoa da iraungipena onartzea.

Aipatu manuak eta oro har aplikagarriak diren gainerako arauak ikusita,

Justizia eta Herri Administrazioko sailburuak hau

EBATZI DU:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan, Bilboko «Fundación Colegio del Ave María» fundazioaren iraungipena onartu eta inskribatzea.

Bigarrena.– Agindu hau, batetik, interesatuari jakinaraztea, eta, bestetik, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea.

Agindu honek administrazio-bidea amaitzen du. Bere aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, hil biko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko irailaren 19a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.